

Asisko gutuna

2023ko urria

4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi

180. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Elkartean bizitzeak doakotasun-maila handia eskatzen du. Hau da, besteei emana bizitzea, eta emate horrengatik ordainketarik eskatu gabe.

Gogoetarako gaia

Doakotasuna, musu-truk

Elkarte bizitza hitzartutako bizikidetza hutsa baino askoz gehiago da, adostutako hartu emana baino gehiago. Egia esan, nolabaiteko elkarren arteko erantzukizuna egon behar du komunitateko bizimoduan. Familia batek, bikote batek, elkarte batek ez du etorkizun handirik batzuek dena jarri eta beste batzuek ezer egin gabe jaso besterik egiten ez badute. Elkarbizitzaren mugak eta baldintzak ezagutu behar dira. Baina elkar bizitzak ere ez du etorkizunik, beti bakoitzak bere aldetik jartzen duen korrespondentzia zehatzari begira bagaude. Erlazioek freskotasuna galduko lukete bakoitzak bere aldetik jartzen duenaren kontrapartidak markatzen badu dena. Elkarrekin bizi bai baina elkarte, baina elkarre-bizitzarik sortu gabe.

Elkartea doakotasunean bizi behar da. Guztia neurtu nahi ez izateko jarrera da, elkarren arteko zorak txorrotx ez eramateko jarrera; desberdinak garela ikasi eta ezin dugula beti neurri

berean eskaini onartzea. Doakotasuna denok batzeko, entregatzeko, emateko modu desberdina ditugula errespetatzen ikastea da. Doakotasunak ere badaki denbora, komunitateko kideen erritmo, ezaugarri, trebetasun eta muga berri. Ezin da beti kopuru eta modu berean eman. Doakotasunak ez du esan nahi bueltan ezer espero ez dudarik, baizik eta ez dudala bueltan ezer exijitzen maitatzeko baldintza gisa.

Jainkoak badaki musu-trukean maitatzea zer den. Zer ematen digun ikustea besterik ez da behar, Berak guregandik proportzio berean jasotzea ezer espero izan gabe. Ezinezkoa bazaigu ere ezer itzultzea proportzio berean, Berak hala ere doan ematen jarraitzen du. Eta desproporzio hori erabatekoa da. Ea noizbait Jainkoaren misterio honezaz jabetzeko grazia ematen zaigun. Honek aldatuko digu bizitza. Argi honek elkartea dohainik bizitzen laguntzen digu.

Ebanjelio pasartea: Mt 5, 43-48

«Badakizue legean agindua: Maitatu lagun hurkoa eta gorrotatu etsaia. Nik, berriz, hau diotsuet: Maitatu etsaiak eta egin otoitz pertsegitzen zaituztetenen alde; horrela, zeruko zeuen Aitaren egiazko seme-alaba izango zarete, hark zintzoentzat eta gaiztoentzat ateratzen baitu eguzkia, eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat isurtzen euria. Izan ere, maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, bada, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala.

Frantziskotar espiritualtasuna

Askok ikusten zuten anaiak beren atsekabeetan poztu egiten zirela, zintzo eta debozioz otoitzari emanak bizi zirela, dirurik ez zutela hartzen ez eramaten, eta elkarri maitasunik handiena ziotela —hortik antzematen zitzairen egiaz jaunaren jarraitzaile zirela—. Hau dena ikusita, asko joaten ziren haiengana bihotz-damuturik, eta egin zizkieten irainen barkamena eskatzen zieten. Eta haiek bihotzez barkatzen zieten, esanez: «Jaunak barka diezazuela».

Zintzo jarduten zuten egunero otoitzean eta beren eskuez lan egiten, arimaren etsai den alferkeria erabat uxatzeko. Barru-barruko maitasunez maite zuten elkar, eta bata besteari zerbitzu egiten zion, eta amak bere semea bezala zaintzen zuten elkar. Hain sutua zen haien arteko maitasuna, erraza iruditzen baitzitzairen bizia ematea, ez Kristoren maitasunagatik bakarrik, baita beste anai-kideen gorputz-arimetako salbamenagatik ere.

Hain oinarrituak eta finkatuak zeuden apaltasunean eta elkar maitasunean, bata bestea ohoratzen zuten, aita eta jaun balitz bezala; eta beren kargu edo dohainengatik besteak baino gorago zeudenak, besteak baino apalagoak eta behekoagoak ziruditen. (HLaLe 41-42)

Otoitza

Jauna, ea nire ahotsa iristen zaizun.
Hemen nago. Isilik.
Esateko hitz handirik gabe.
Eskaintzeko obra handirik gabe.
Adiera handirik gabe egiteko.
Hemen bakarrik. Bakarrik, bakardadean.
Eman nahi didazuna jasoko dut: argia ala itzala.
Kantua ala isiltasuna. Itxaropena ala hotza.
Zortea ala zoritxarra.
Alaitasuna ala porrota. Barealdia ala ekaitza.
Eta lasai hartuko dut, bihotz lasaitu batekin,
zeren badakit zu ere, ene Jainkoa,
Jainko pobrea zarela.
Batzuetan bakarrik zauden Jainkoa.
Eskatu gabe ere, gonbidatzen duen Jainkoa.

Indarrean eskatzen ez duena; zain dagoena baizik.
Behartu beharrean, maite duena baizik.
Eta gauza bera egingo dut nire munduan,
nire jendearekin,
nire bizitzarekin: datorkeena opari gisa onartzea.
Nire hiztegitik exijentzia ezabatzea.
"Eman" aditza azpimarratzea.
Sarritan galdetu: "Zer behar duzu?"
"Zer egin dezaket zugatik?",
eta gutxitan esan "nahi dut" edo "eman niri".
Eta horrela jarraitzen dut, Jainkoa:
Hemen, besterik gabe, bakardadean.
Isilik.
Zurekin, ene Jainko behartsuarekin.

Gutuneko azken hitzak

Giza harremanen arteko doakotasunak balio kalkulaezina du.

2023ko urriko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1 Mt 21, 28-32	8 Mt 21, 33-43	15 Mt 22,1-14	22 Mt 22,15-21	22 Lk 13,1-9
2 Mt 18, 1-5.10	9 Lk 10, 25-37	16 Lk 11, 29-32	23 Lk 12, 13-21	29 Mt 22,34-40
3 Lk 9, 51-56	10 Lk 10, 38-42	17 Lk 11,37-41	24 Lk 12, 35-38	30 Lk 13, 10-17
4 Mt 11,25-30	11 Lk 11, 1-4	18 Lk 10, 1-9	25 Lk 12,39-48	31 Lk 13, 18-21
5 Mt 7, 7-11	12 Lk 11, 27-28	19 Lk 11, 47-54	26 Lk 12,49-53	
6 Lk 10, 13-16	13 Lk 11,15-26	20 Lk 12,1-7	27 Lk 12,54-59	
7 Lk 10, 17-24	14 Lk 11,27-28	21 Lk 12, 8-12	28 Lk 6,12-19	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Urriko otoitza hilaren 26an
izango da.